

SALMOAK ETA A. LINOREN ARGITALPENA BIZKAIERAZ

Salmoen jatorria eta motak

Esku artean duzun salmoen liburu honek badauka egokiro erabiltzeko sarreratxo bat. Bertan, oso labur bada ere, hainbat datu interesgarri eskaintzen dira salmoen jatorriari eta erabile-rari buruz.

Salmoen sorrera eta erabilera aztertu duten jakitunek, gaur egun eskura dituzten datuak kontuan hartuz, argi erakusten di-gute salmoak Israel Herriaren historiako hainbat jazoera eta bi-zitzaren ispilu eder ditugula.


Salmoak aztertzerakoan, gainera, hainbat ikuspegi erabiliz jorra dezakegu arloa. Olerkiak diren adinean azter ditzakegu edota Biblia barruko liburu sakratu modura hartu. Hau da, an-tzinako herri bateko olerki-sorta osatzen duten adinean edota gizakiaren eta Jainkoaren arteko harremanetan erabilitako otoi-tzak diren neurrian.

Jatorria

Gaur egun nahikoa aztertua dugu salmoen jatorria. Lehen-a-go David erregearenak zirela esaten bazen ere, orain badakigu gehienak egile animoek eginak izan zirela. Israel herriaren une

SALMOAK

*Lino Akesoloren
mendeurrenako argitalpena*



historiko desberdinetan sortuak. Sorrera hori, gainera, unean uneko beharrianek bultzatua izan zela. Jakina, ospea emateko edo, egile nagusitzat hain aintza handikoa izan zen David erregeari leporatu zizkioten.

Salmoetan, gainera, multzoka banatutako hainbat literatura mota agertzen zaizkigu. Hainbatetan inguruko herrietan erabiltzen ziren joera literarioei jarraituz. Ezin lan labur honetan banaka zehaztu. Nahikoa dugu gogoratzea ibilbide historiko baten emaitza izan zirela. Egin-eginean ere, beste herrietako olerki eta kantiken antzeko jatorria izan zuten.

Aurrekoa gogora ekarri ostean, kontuan izan dezagun edozein giza taldek beharrezko izaten duela elkartearen bizitzako loturak estutzeko edo jagoteko taldekideen arteko egintza bateratuak abian jartzea. Historian zehar era askotako gizarte egintza bateratuak ageri zaizkigu. Horrela, oso ezagunak ditugu antzinako herri batzuetan, esaterako, Grezian eta Erroman antolatzen ziren jai handi eta entzutetsuak.

Herri gehienetan bertako kideen arteko loturak indartzeko egintzak bultzatzerakoan aparteko lekua izan dute joko, dantza, kantu eta horrelakoek. Pertsona bakarraren eremutik taldearen eremura salto egiteko bide izaten zirelako.

Halako taldekako ospakizunak, baina, bide batez familiako kideen arteko loturak estutzeko ere izaten ziren. Horrela, herriko ageriko agerraldietarako gertatu beharra izaten zenez, berez sortzen zen herritarren artean familia eta auzo giroan halako egintzak martxan jarri eta bultzatzeko gogoak.

Gizarte zehatz bateko kide izateak berez eskatzen du taldeko kide guztien edota hainbaten arteko harremanak bideratzea. Taldekide sentitzeak aldean ekartzen du aldika-aldika egintza bateratuak egitea.

Israel herrian ere, nahiko antolatuta ageri zaizkigu urtean zehar ospatzeko jaiak, nahiz asteburuetan egin beharreko bileak. Horrela, Biblian argi ageri zaigu herritarrek larunbatetan

elkartzen zirela liburu santuak irakurtzeko eta elkarren artean salmoak kantatuz otoitz egiteko.

Beraz, salmoak beharrian sozial eta erlijiosoak bultzatuz al-dian-aldian sortutako egoeren ispilu antzeko zerbait ditugu.

Motak

Salmoen azterketa zabal bat egitera joz gero, batez ere bi multzo edo sorta nagusi ageri zaizkigu. Hain zuzen ere, bizitzak berak izaten dituen bi jazoeraren inguruan sortuak. Poztasunak eta sufrimenduak markatzen dute gure bizitzako bidea eta arlo bi horiek ageri zaizkigu batez ere salmoetan ere.

Salmoak, beraz, handi-handika hartuz erosta edo samina eta aintza agertzeko eginak izan ziren. Bizitza bera moduan, ardatz nagusi bi horien inguruan eratuta ageri zaizkigu, banaka batzuk erdibidekoak edo eskaria adieraztekoak izan arren.

Geroago ikusiko dugunez, batetik norberaren sakoneko atsekabeak eta herriko jazoera ilunek sortutako bihotz-minak agertu zaizkigu. Erosta edo samin hori, pertsona bakarrena edota taldearena izan daiteke.

Beste hainbat salmotan, Jainkoaren esku-hartze salbagarria gogoratuz bihotz barrenetik esker onez sortzen den aintza agertzen zaigu. Salbamen hori pertsona bakarrarena nahiz herriarena izan daitekeenez, aintza ere bakarka edo taldeka adieraziko da. Mota honetako salmoak eskerrak emateko salmoak direla esaten da.

Dena dela, eskerrak emateko salmo hauek ez digute egintza konkretu bat jartzen aurrean. Batez ere, Jangoikoa historian zehar emandako salbamena dakarkigute gogora. Honelako salmoetan Jangoikoa goratzen da ‘Jangoikoa delako’, ‘Jangoikoa egile delako’. Eta, jakina, beti taldeka erabiltzekoak dira. Jangoikoa gauza guztien ‘Sortzailea’ eta historiaren ‘Jauna’ delako goratzen da.

Badira beste salmo batzuk ere, hain zuzen, liturgian erabiltzeko eginak edota jakituria herriarengana eramateko gertatutakoak. Salmo gehienak une historikotik kanpo erabili daitezkeenak izan arren, azkenok unean uneko beharrianetarako gertatuak izan zirela ematen du.

Salmo-liburua Israel herriaren historiaren laburpena

Salmoak, esan dugun moduan, herriak bere bizipenak batez ere taldeka agertzeko gertatutako olerki errimatuak diren adinean, zenbait une historikotan, hainbat jazoera historikori erantzuteko asmoz sortuak izan ziren.



Biblian, batez ere, Israel herriaren ibilbide historikoa agertzen zaigu. Ikuspegi erlijiosoz kontatuta, baina, azken batean garai hartan ohikoa izaten zen eran idatzita ere bai. Horregatik, irakurtzerakoan hari nagusiari jarraitu behar diogu, Israel herriaren nondik norakoen berri orokorra eskaintzen digute eta.

Jazoera historiko guztiak argitu beharra izaten zuten, eta, jakina, horretarako oso garrantzi gutxi izaten zuten egintza konkretu bakoitzaren inguruko zehaztasunek. Bibliako liburuen zerik behinena eta gogora ekarri beharrekoa, Israel herria Jaungoikoak aukeratutako herria zela, Egiptotik askatasunera etorritakoa, inguruko herriek ez bezala Jaungoiko bakarrarengan sinesten zuena, eta bizimodu erlijioso zehatza zuena zela jakitera ematea zen. Salmoak ere bide horretatik datozkigu. Ikuspegi erlijioso eta politiko horren ispilu ditugu.

Salmo-liburuak, bada, neurri handi batean, Biblia osoaren laburpen bat edo eskaintzen digu. Israel herriak izandako jazoerarik behinenak gogora ekartzen dizkigu. Eta guzti hori, eurak bizi zuten gizarte-antolaketa erlijiosoaren barruan.

Hori guztia argi ikusi zuten lehenago ere, salmoak aztertzerakoan, esaterako, San Atanasiok salmo-liburuak salmo historikoak, profetikoak eta jakituriakzkoak batzen dituela, hau da, Bibliako beste lorategi guztietan landatutako fruiturik ederrenak batzen dituen idazkiak direla esaterakoan.

Bide beretik jardunez, Luterok salmoen-liburuak Biblia osoaren laburpena eskaintzen digula dio: ‘Uste dot Espiritu Santuak berak egin gura izan euskula Biblia labur bat, Biblia osoa irakurri ezin dauenak, gutxienez, Biblia osoaren laburpena liburu txiki batean batuta eskura izan dagian’.

Beraz, gogoan izan dezagun, salmo-liburuak era laburrean Jainkoaren salbazio historia osoa eskaintzen digula. Bide batez juduek historian zehar bizi izandako ibilbidea eta bizipenak argitzen dizkigula. Bertan batzen dira, herritarren sentimenduak,

erlijio-itxaropenak, pertsonen amets eta saminak, historian zehar bizitako bide luzearen ikuspegi zabala.

Salmoak juduen otoitz liburu nagusia

Goiago bide batez aipatukoari jarraituz esan dezakegu salmoak aparteko lekua izan zutela Israel Herriaren gizarte bizitzan. Herriarrek beharrezkoak zituzten euren bileretan otoitz eta kantuok.

Era berean, herriaren batasuna eta itxaropenak jagoteko oso laguntza handia herriak historian zehar bizi izandako momenturik garrantzitsuenak gogora ekarri eta argibidetzat hartzea. Baina, horretarako Bibliako beste liburuak entzute hutsean geratzen ziren bitartean, buruz ikasten ziren salmoek aparteko aukera eskaintzen zuten.

Salmoek aukera paregabea eskaintzen zuten etxean, bidean, lanean kantuz erlijiozko bizitza bero-beroan bizitzeko, herriaren une historikoak gogoratzeko, naturarekin hain estua zen bizitzan Jaungoikoaren presentzia sentitzeko.

Larunbatero sinagogetan egiten zen Bibliaren irakurketa ez zen nahikoa aurreko belaunaldietatik jasotako altxorra belaualdi berrietara eramateko, jende gehiena ezjakina eta analfabetoa zen garaietan. Beharrian horrek bultzatu zituen salmoen egileak halako olerki ederrak sortzera, transmisio bide berri eta eragingarriagoa abian jarritz.

Geroago idatziak izan ziren arren, mendeetan zehar herri-tarrak buruz ikasi eta kantatutako olerkiak izan ziren. Egoera eta une historiko konkretuan sortuak izan arren bestelako argibidea eskaintzen zuten egoera eta une berrietarako. Biblian kontaktzen dizkiguten Jainkoaren eta herriaren arteko harremanak kantuz gogoratzeko eta bizitzeko biderik ederrena bihurtu ziren.

Judu guztiek txikitatik ikasten zituzten eta euren beharriaren arabera erabiltzen bizitzako une bakoitzean. Israelgo kultura-biderik garrantzitsuena bihurtu ziren. Israeldarrek, batez ere, salmoak kantatuz egiten zuten otoitz. Bileretako presentziaz aparte salmoen bidez agertzen zuten euren arteko batasuna.

Salmoen bidez, sinagogetako irakatsiak eta eguneroko bizitza lotzen jakin izan zuten. Oso nabarmen ageri zaigu hau Jesusen bizitzan ere. Ebanjelioak sarri jartzen ditu Jesusen ahotan salmo-atalak, egoera konkretura egokituz. Apostoluek ere azken afariaren ostean salmoak eta errezatu zituztela gogoratzen zaigu. Honelako hainbat une gogoratzen dira liburutxo honetako sarrera-orrietan.

Labur esanda, salmoak izan ziren israeldarrak elkarrekin eta Jaungoikoarekin harremanetan jartzeko biderik errazena eta eragingarriena.

Salmoak kristauen otoitz libururik erabiliena

Lehen kristauak, gehienak juduak zirenez, euren liturgia-ospakizunak antolatzean, Jesusen ondoan bizi izandako biderei jarraitu zioten. Eukaristiak aparteko garrantzia hartu bazuen ere, euren bileretan salmoak erabiltzen jarraitu zuten, taldeko erlijio-sentimendu guztiak biltzen zituztelako.

Egia esan, Jesus berpiztuaren bizipenaren ondorioz, interpretazio berria ematen hasi ziren, baina, otoitz egiteko eta Jainkoa gosestea aukera-aukerako bide modura erabili zituzten salmoak.

Elizaren tradizioak bide luzea egin du azken bi mila urteotan zehar; antzina hasita ohikoa izan da elizgizonek eta talde-bizitza egiten zuten monje eta gainerakoek taldekako otoitzeko salmoak erabiltzea. Egia esan, oso nekez bizi ahal izango genituzke kristau-ospakizunak bat-batean salmoak albora utziz. Gaur egun kantuak eta ugari izan arren, beharrezkoak ditugu



oraindik taldekako otoitzero. Liturgiako kantu asko, gainera, salmoen egitura erabiliz eginak izan dira.

Hori guztia zela eta, kristautasuna grekoen eta latindarren mundura zabaltzeak bultzada handia eman zien salmoen itzulpenei. Biblia irakurtzeko pertsona alfabetatuak izatea eskatzen zuen. Liburuak ere banaka ziren kopiak eskuz idatzi beharra izaten zelako. Otoitzak, bestalde, taldean egiten ziren eta horretarako biderik egokiena salmoak ziren.

Bestalde salmoetan, gorago aitatu dugun moduan, Bibliako jazoerarik garrantzitsuenak gogoratzen direnez, bide batez Bibliaz jabetzeko bide ere izan ziren. Jainkoaren hitza herritarrengana eramateko biderik zuzenena izan digugu. Hori horrela, kristauak erabileraren erabileraz buruz ikasten zituzten. Oraindik gogoan dut zelan erabiltzen zituzten nire auzoko zaharrek buruz ikasita salmoak latinik jakin ez arren, zenbait unetan. Eta hau hogeigarren mendeko bigarren aldian.

“Salmoen” erabilera Euskal Herrian

Lehen eta behin gogora ekarri behar dugu ‘Salmoak’ Biblia barruko liburu batean batuta ageri zaizkigula. Esan den moduan bertako atal garrantzitsua osatzen dute. Hainbatean Testamentu Zahar osoaren laburpena edo eskaintzen digu. Era berean gogoratu dugu kristauak ere, judeguen ohiturari jarraituz, hasieratik bereganatu eta erabiltzen zituztela salmoak liturgian.

Beraz, Biblia herri-hizkuntzetara eramaterakoan aparteko lekua izan du salmo-liburua herri hizkuntzan jartzeak. Gure artean ere bai. Kontuan izan behar dugu Biblia izan dela historian zehar hizkuntza-bertsio gehien izan dituen liburua. Aparteko garrantzia izan du, bada, mendez mende egin den erlijio eta kulturaren transmisioan.

Hori horrela, luze jardun beharko genuke hemen Bibliaren itzulpenek Euskal Herrian izan duten ibilbide luzea argitzeko. Hemen laburpen bat baino ezin dugu eskaini. Arloa sakonago ezagutu nahi duenak jo dezala orain dela gutxi ‘*Elizen arteko Biblia*’n jardun izandako Dionisio Amundarain teologoak egin-dako lan ederrera (Scriptorium Victoriense, Volumen LVII, N°1-1, 2010 Enero-junio; euskarako bertsioa: ‘erabili.com, 01/03/2011).

Lan mardul horren izenburua erakargarria da: ‘*Biblia Euskal Herriko historian*’. Bertan, batetik, Bibliaren mezuak Euskal Herrian izandako eragina aztertzen du; bestetik, Bibliaren edo Biblia-zatien euskal itzulpen nagusien deskripzio laburra egiten.

Hemen salmoei buruz ari naizenez, alor hori jorratzen duten itzulpenak interesatzen zaizkit batez ere. Eta halakoen artean jendeak erabiltzeko asmoz egindakoak. Hogeigarren mendearen bigarren aldira arte Elizaren ospakizun-hizkuntza latina izan genuenez, elkarteko otoitz-lanetarako itzulitako salmoak interesatzen zaizkit.

Nik, laburtu beharrak eraginda, lau itzulpen aipatu gura dut, salmoen erabilera herritarren artean zabaltzeko bide izan direlako:

Mezako testuak eta bezperak euskaraz

Nikolas Ormaetxea (Orixe) jaunaren *Urte Guziko Meza Bezperak* (1950) izan zen bidea egin zuen lehena. Geroago, salmoak herritarren esku jartzeko ahaleginetan jarraituz, *Salmutegia* (150 salmo eta Bibliako 17 kantika) deituriko liburutxoak gertatu zuen; berau Lazkaoko Beneditarrek argitaratu zuten 1967an. *Urte Guziko Meza Bezperak* liburua izan zen euskarari liturgian atea zabaltzeko. Zutabe bitan, latinez eta euskaraz, eskainia izan zenez erraztasun handia eskaini zigun sasoi hartan ikasle ginenoi euskaraz alfabetatzeko nahiz euskarako testuak gozatzeko. Bestalde, bezperak euskaraz eskaintzerakoan, igande arratsaldetan otoitzal-



diak salmoak erabiliz egiteko aukera eskaintzen zuen. Batez ere Nafarroan eta Gipuzkoan izan zuen erabilera.

“Salmoak” kanta liburua

Xabier Diharte (Iratzeder) eta Aita Lertxundik abesteko musika egokia ezarriz 1963an argitaratutako liburu mardula dugu. Euskal Herri osoan oihartzun handia izan zuen *Salmoak* liburu mardul eta aberatsak. Euskarari liturgiako ospakizunetan lekua egiteko egarri bizia genuen eta liburu hau iturri ederra izan zen egarri hori asetzeko. Jatorrizko testuarekin batera beste bi egokitzapen izan zituen. Bata Aita Isidro Baztarrika beneditarrak moldatutako gipuzkoar bertsioa (1962) eta bestea Aita Lino Akesolok bizkaieraz urte bete beranduago, 1964an argitara emana.

Interesgarria iruditzen zait Dionisio Amundarainek bere lan zabalean honi buruz dioskuna: *Bibliaren inguruan Euskal Herriak zerbait erabili badu, hauxe erabili du beste ezer baino mila bider gehiago. Etxetiar bihurtu zaio Euskal Herriko fededunari. Jatorrizko bertsioa ez ezik, Isidro Baztarrikak moldaturiko gipuzkoar bertsioa, 1963an berean argitara emana, ere erruz erabili izan da liturgian. Baita Lino Akesolok bizkaieraz eman eta 1964an argitaratu zutena ere. Gainera, Liturgiako gerora egin izan diren testuek oinarri izan dute Iratzederren eta Lertxundiren liburua, bai testuari dagokionez, bai musikari.*

Salmoen hiru bertsioak hasiera-hasieratik zabalkunde handia izan arren, ez zuten behar hainbesteko oihartzuna izan. Egin-eginean ere, eliz testuak euskaratzeko batzordeak bere lana argitaratu ahala, gainerakoak baztertu egin zirelako. Aurreko urratsa kontuan hartu zen, jakina, irakurgaien arteko testuak eta egokitzerakoan, baina testu bakar bat egin beharrak berez ekarri zuen, jende artean erabiltzen ziren hiru bertsioak (Iparraldekoa, Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa) baztertzea. Hala ere, eragin handia izan zuen testu bateratuak sortzerakoan Dionisio berak aitortu digunez. Aurreko lan izugarri horrek hainbatean erraztu zuen Eliz Barrutien arteko Batzordearen lana.

Eleiz liburuak

Vatikano II.aren eraginez, herri hizkuntzei liturgian lekua egin zionean, berehala eratu zen Euskal Herriko Elizbarrutien artean, harako liburuak euskaratzeko batzordea. Hegoaldeko batzordeak lan mardula egin zuen ahalik eta testurik bateratue-na gertatzen. Meza liburuetako irakurgaien arteko salmoak ere bateratu egin ziren hainbatean. Hasiera batean, atalka argitara-tu ziren lanak, zer-nolako erantzuna jasotzen zuten ikusi os-tean azken orrazketak egiteko asmoz.

Dena dela harako garaia oso bizia izan genuen Euskal Herri osoan zehar eta inguruko giroak bere eragina izan zuen batzorde horretan. Nik argitara eman ziren testuak konparatzeko ikerketa bat egin nuenean argi ikusi nuen nolako ahalegina egin zuen euskalki guztietako ordezkari osatutako batzordeak euskara batzeko. Gipuzkoa/Nafarroarako eta Bizkairako egin-dako testuen artean ehuneko laurogeita hamarretik gora bat eginda datoz. Eta ez bakarrik hitzik erabilienak aukeratzera-koan, euskarako joskera erabiltzerakoan ere bai. Aditz formak eta atzizki eta elkarte-esamolde batzuk kenduz gero testu ba-karra dugu. Iparraldeko bertsioak aurrerago egina zenez, beste ikuspegi zabalago batetik zehar jarduten du.

Egia esan, Erromatik ere hori eskatzen zuten, eta hainba-tean lortu zuen batzordeak bere ardurapean jarritako bateratze-lana. Horrek, baina, testu bakarra erabiltzean, aurreko itzul-pen guztiak baztertzea ekarri zuen. Hortik, *Salmoak* kanta-li-buruak eta ondoko bertsioek zabalkunde eta erabilera mugatua izatea aldi labur baterako izan zirelako. Beharbada, musika-al-deko egituraketa bera ere zailegia gertatzen zen hainbat apaiz eta eliztar erabiltzailerentzat.

Orduen liturgia

Eliz testuak euskaratu eta berehala agertu zen liburu hau. Dakizuenez latinezko '*Brebiarium*' liburuaren itzulpena zen.



Andres Urrutia Euskaltzainburua A. Linoren senitartekoekin

Hau da, apaizek eta erlijiosoek egunero otoitzaldiak egiterakoan euskaraz erabiltzeko salmo eta kantika liburua. Euskara jator eta txukunean antolatuta argitaratu zen. Jakina, Euskal Herri osorako bertsio bakarra, elizbarruti guztietako gotzainek onartua

Euskara batu-batuan egon ez arren, Euskal Herri osorako testu bakarra egin beharra zegoenez, nahiko batuan argitaratua izan zen. Izan zituen, bai, euskara batuaren jarraitzaile sutsu batzuen kritikak, baina, nire ustez apaizak eta erlijiosoak euskara baturantz ekartzeko bidea izan da liburu eder hori.

Egiten ari zen euskara batutik aldentzen zuen zerik agerikoe-na 'h' hizkiari lekuri ez egitea izan zen. Ortografia arloko beste txikikeria batzuk ere baditu, esaterako 'ñ' hizkiaren erabilera. Aditza, oster, Azkuek eta proposatutako gipuzkera bateratuarena edo. Sinonimoen artean aukera egiterakoan ere, erdiko euskalkia dugun gipuzkerari eman zitzaion lehentasuna.

Aipatu berri digutun liburuok izan dira salmoak euskal herritarrengana urreratzeko bide nagusienak. Kontuan izan behar dugu, gaur egun edozein elizkizun ospatzerakoan beti izaten direla bertan salmoak, eta horrek herritarrei parte hartzeko aukerak eskaintzen dizkiela.

Aita Lino Akesoloren ‘*Salmoak*’

Salmoen inguruan gogoeta batzuk egin ostean, beharrezkoa dugu esku artean dogun salmo liburu honi buruz zerbaitea. Azken batean berau dugulako gure gogoeta luze honen euskarria.

Esan dudan legez, Lino Akesolok ‘Iratzederrek’ musika eta guzti kantatzeko argitaratutako ‘*Salmoak*’ liburuak jarri zuen bizkaieraz. Testua aurretik ezarritako neurri estuetara egokitu behar izan zuen. Eta egokitu ere, oso zehatz eta ederto. Horretarako, zer esanik ez, salmo bakoitzak eskatzen zuen musikamota kantatuz egin behar lana. Nik behin baino sarriago erabili izan dut, eta barruan eskaintzen duen erritmoaren doinua gozatu. Aurretik egindako testu bat bizkaieraz jartzea izan arren, merezimendu handiko lana dugu, bizkaiera errazean eta kantatzeko arauak zehatz beteta egindako lana dugulako. Bestalde, salmo-liburuak ez dira, hasieratik amaierara irakurgai modura etengabe irakurtzekoak.

Hori horrela, salmoak errimatutako olerki modura eskaintzen zaizkigunez, olerki-giro eta doinu bereziko mundu horretara hurreratzen gaitu liburu honek. Bide batez, bizkaierazko bertsio honek, euskalkiz bizkaitar garenok gure etxeko euskararen kutsu atsegina gozatzeko aukera ere eskaintzen digu.

Linoren jaiotzako urteurrena ospatzeko liburu honen argitalpena proposatu nuenean, gure herritarrei, batez ere bizkaitarrei, euskararen aberastasunak eta joko atseginak gozatzeko bide izango zela eta egin nuen.

Nire asmo edo begirada, baina, zabalagoa zen. Egin-eginean ere salmoek olerki-kutsu gozoz gizakioi geure artean eta Jainkoarekin harremanetan jarduteko eskaintzen diguten aukera paregabea herritarren esku jartzea. Beraz, liburu txiki hau eskuratzen duzun horrek, fededun izan edo izan ez, gogoetarako bide izatea nahi nuke. Fededuna bazara, edozein unetan otoitzaldiren bat egiteko lagungarri izango duzu.

Patxi Uribarren Leturiaga